

28  
MAI

0



## XXV. Sagardo Eguna larunbatean

 Iruzkinik ez OIARTZUARRAK.ORG; Albisteak;

Urtero bezala, maiatzeko azkeneko asteburuan etorriko da aurtengo udaberri jaia. Bere baitan hartuko du XXV. Sagardo Eguna. Maiatzaren 31n izango da aurtengoa eta Sagardo Egunaren XXV. Urteurrena modu berezian ospatuko da. Oiertzuarrak guztiei eta bertaratzen direnei baserritarrez jantzita parte hartzeko deia egiten zaie.



Baserritarrez jantzita azaltzeko deia egin dute antolatzaileek

Aurtengoan ere egun guztiko jaia antolatu dugu Girizia Elkarteko Kultur eta Kirol sailak, Oiertzungo Udalaren, Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea eta herriko taberna eta komertzioen laguntzarekin. Egun guztiko egitarau berezi eta oparoa prestatu nahi izan dugu oiertzuarrak guztientzat.

Goizeko 11:00etan triki jirarekin emango zaio hasiera egunari. 11:30ean Oiertzungo baserrietako sagardo dastaketa egingo da. Iazko arrakasta ikusirik II. Sagar Tarta lehiaketa izango da. Parte hartu nahi dutenek goizeko 11:00etatik 12:00ak bitartean Kontsejupera eraman beharko du bere sagar tarta.

Eguerdiko 12:00etan Sagar lehia izango da herriko gazteekin. Herriko eragileek prestatutako jokuak egingo dituzte, kuadrilarteko lehia izango da beraz antolatu dena. Plaza inguruan sei joku desberdin egin beharko dituzte. Sagar lehia bukatu ondotik tarta txapelketako irabazlearen izena jakinaraziko da.

Arratsaldean 17:30ean Haurrentzako puzgarriak, tailerrak eta txokolatada izango da Euskal Herria plazan. 18:00etan emango zaio hasiera sagardo dastaketari. XXV. urteurren honetan, lehenengoa antolatu zuten haiek egingo dute txotx-aren irekiera. Oiertzungo plazara bertaratzen denak 15 sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera izango du.

Aginaga (Usurbil)  
Elutxeta (Urnietak)  
Larrarte (Astigarraga)  
Lizeaga (Astigarraga)  
Mendizabal (Astigarraga)  
Oiarbide (Astigarraga)  
Otegi (Lasarte)  
Otsuenea (Hernani)  
Petrítegi (Astigarraga)  
Goiko Lastola (Hernani)  
Larregain (Hernani)

### AGENDA

<< 2014. **MAIATZA** >>

| As. | As. | As. | Ost. | Ost. | Lar. | Ig. |
|-----|-----|-----|------|------|------|-----|
|     |     |     |      | 1    | 2    | 3   |
|     |     |     |      |      | ..   | 4   |
| 5   | 6   | 7   | 8    | 9    | 10   | 11  |
| 12  | 13  | 14  | 15   | 16   | 17   | 18  |
| 19  | 20  | 21  | 22   | 23   | 24   | 25  |
| 26  | 27  | 28  | 29   | 30   | 31   |     |

### >> HURRENGO EKITALDIAK

**[2014-05-28]:** Antzerki Eskolan izen-ematea

**[2014-05-29]:** Kontzertuak

**[2014-05-31]:** Kontzertu jaialdia

### Tweets

Follow



**Oiertzuarrak ga** @oiertzuarrakga 1h  
XXV. Sagardo Eguna larunbatean: Urtero bezala, maiatzeko azkeneko asteburuan etorriko da aurtengo udaberri ja...  
[bit.ly/SON94n](http://bit.ly/SON94n)  
Expand



**Nagore Vega** @muxilla 16h  
.[@birasuegi](https://twitter.com/birasuegi) hitzaldia ematen hasi baino lehen, konzentratuta [#fiare](https://twitter.com/hashtag/fiare) [#olatukoop](https://twitter.com/hashtag/olatukoop) [#oiartzunazmarrin](https://twitter.com/hashtag/oiartzunazmarrin) [#koop57](https://twitter.com/hashtag/koop57)  
[pic.twitter.com/WJayPhLOAm](https://pic.twitter.com/WJayPhLOAm)  
Retweeted by Oiertzuarrak ga



Expand



**Oiertzuarrak ga** @oiertzuarrakga 21h  
Tweet to @oiertzuarrakga

### AZKEN IRUZKINAK

 neka (2014-04-02 07:54:17)

Baleio (Oiartzun)  
Ordozelai (Oiartzun)  
Aristizabal (Oiartzun)  
Linddurren Borda (Lesaka)

Sagardo dastaketa amaitzearekin batera Los Railes musika taldeak kontzertua eskainiko du Landetxe plazan 20:30ean. 21:00etan afaria izango da Kontzejupeko sagardotegian.Udaletxe azpiak sagardotegi itxura hartuko du eta afari bikaina izango da 15 euroren truke. Txartelak Amazkar tabernan eta Garmendi txokolategian daude salgai.

Girizia Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu aurtengo Udaberri Jai eta Sagardo Egun hau antolatzen laguntzen ari diren guztiei. Era berean oiartzuarrak eta inguru herrietako jendea gonbidatu nahi dugu maiatzaren 31an parte har dezala antolatuako jai eder honetan.

IRUZKINAK

Egin zure iruzkina

Izena:   
E-posta:

Galdera: garrantzitsua! Erantzuna zenbakiz eman, mesedez

2+1=

Galdera hau spam-aren (eskatu gabeko mezuen) aurkakoa da. Robotak edo pertsonak bereizteko balio du. Eskerrik asko.

...:Iruzkina Bidali:...

dardara luze batean murdilgu naiz bapatean ta sekretua.... (...)

>> Mikel Urdangarinen kontzerturako sarrerak nahi?

 **Haira** (2014-03-18 10:57:38)

Larre berdeak, ebe zuri teilu gorriak, jendarme auto bat bidear

>> Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerarik nahi?

 **xabier** (2014-03-17 23:40:14)

Ez da posible! (...)

>> Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerarik nahi?

 **neka** (2014-03-13 12:45:51)

Ainhoa laun zarra ikusteko gogozi! (...)

>> Ta oain ze? antzerkirako sarreren zozketa!

 **Larraitx** (2014-03-11 15:26:30)

Oiartzungo Antzerkizale Elkarteari eskerrak antzerkia berriz gure herrira urbitzeagatik!! (...)

>> Ta oain ze? antzerkirako sarreren zozketa!

Herriko Sarea

BOLETINA /



**ALBISTE GUZTIEN  
LABURPENA ZURE POSTAN  
JASO NAHI AL DUZU?**

HERRIKO SAREA

- Abaraxka
- Antiju Morik
- Arraztalo
- Azmarrin
- Beloaga bizirik
- El Watan
- Eskubide Sozialen Karta
- Girizia Mendizale Elkartea
- Girizia Pala
- Gure Esku Dago
- Ihote Taldea
- Oiartzun Irratia
- Oiartzun Kirol Elkartea
- Oiartzungo Antzerkizale Elkartea
- Ttur-Ttur
- Udala

ESTEKAK

- OarsoBidasoa Hitza
- Orereta Herribizia

